

2008ko
Martxoak

ASEGURURUKO Hitzarmena 2008

Aseguru, berraseguru, eta mutualitateetako 2008ko hitzarmena

Otsailaren 29an Aseguru, Berraseguru eta Mutualitateetako Estatu mailako negoziazio mahaia osatu zen. Horren ostean, martxoaren 10ean bigarren bilera bat izan genuen. Bilera horretan, alde sindikalaren plataformak aurkeztu zituzten eta negoziazioa lan-batzordeen bitartez egingo dela eta hileroko komunean jarriko dela azaldu zuten.

Otsaila amaierako bileran (29koa), berriro aldarrikatu genuen Euskal Herriko hitzarmena negoziatzeko markoa. Baina oraingoan ere ezezko borobila eman ziguten; bai patronalak zein estatu mailako sindikatuak. Beraz, aurrerantzean ekimen berrien aurrean gertatutakoaz hausnartu beharko dugu.

Esan bezala, martxoaren 10eko bileran, sindikatuak euren plataformak aurkeztu zituzten; baita LABek ere. Guk gure asanblada nazionalen aseguruetako delegatuak onartutakoa eraman genuen. Atxikita doakizuen arren, hona hemen plataformaren punturik garrantzitsuenak:

- **Markoa: Hego Euskal Herria.**
- **Hitzarmenaren indarraldia: urte bi.**
- **Soldatak: KPIren igoera + 1,5; kategoriarekiko alderantziz proportzionala.**
- **Lanaldia: 1650 ordukoa.**
- **Genero berdintasuna:** Batzorde bat sortzea plan eraginkorrak egin, kontrolatu eta jarraitzeko.
- **Euskara:** Batzorde operatiboa sortu, elebitasun eraginkorra martxan jartzeko.

Gure ustez, LABek aurkeztu duen plataforma seriozki egindakoa da eta sektoreak pairatzen duen egoera hartzen du kontuan. Izan ere, lan baldintzen murrizketa etengabea baita.

Hitzarmena hasi aurretik zenbait bitxikeri gertatu ziren. Estatu mailan gehiengoa daukan CCOO sindikatuak; ez ordea Euskal Herrian; negoziazio mahaiaren osaketarako ohiturak aldatzea proposatu zuen. Horrela, zenbait sindikaturi ordezkariak kendu eta berentzako ordu gehiago eskatzen zituen. Azal gogorra benetan!

Martxoaren 26an egingo dugun hurrengo bileran, patronalak aurkeztutako plataformei buruzko bere irakurketa azaldu beharko du eta hitzarmen honetarako bere asmoen berri eman.

Bestalde, gogorarazi nahi dizuegu gure markoa Euskal Herria den arren, ahal izanez gero foro guztietan (Madrilen ere bai) hartuko dugula parte gure herriko langileen eskubideak defendatzeko asmoz. Jakin badakigu hemen negoziatuko bagenu bestelakoa litzatekeela negoziazio hori eta horrexen jakitun dira bai patronala zein gainontzeko sindikatuak eta horrexegatik ez dute nahi.

Laister zango duzue informazio gehiago

